



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 19a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duena. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, administrazioari aholku emateari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bi foru agindu zenbaki eta data berarekin argitaratu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Corellan saihebidia eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Etxalarren internetera konektatzeko banda zabala jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza bekaren deialdia onetsi eta ebaluazio batzordea hautatzen duen 55/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, otsailaren 4an Xabierren antolatutako ziren ekitaldietara joan ziren pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, udalen herrilurretan NP Bren ordainketa bakarrekiko eskubideen titulartasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko ea noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –epaitegiek eskaturik– irratien kontratazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Administrazio Auzitegiaren aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak epean ebazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Gobernuak Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikulua egiten duen interpretazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, traumatologiako gaixoen igeltsua kentzeko itxaronzerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Aspacerekiko itunaren ez-betetzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, etxeko ospitalizazio zerbitzua abiarazterari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Senda Viva naturaren parkeko plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Ribaforada-Cortes NA-5200 errepidean saihezbidea egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duen hezurretako dentsitometria egiteko teknologiarik. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Senda Viva naturaren parkean egitekoak diren inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroan oinarrizko errenta jasotzen duten familiei eta gizarte bazterkerian bizi direnen gaineko zenbait auziri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten duen 700/2006 Ebazpenean administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duena.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2006ko maiatzaren 3ko 41. Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2006ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Foru Lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko boluntarioen lana arautu zen, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 17., 14. eta 18. zenbakiek Nafarroari erabateko eskumena esleitu baitzioten gizarte laguntzaren, aisialdiaren erabilera egokiaren, komunitatearen garapenaren eta hirugarren adinekoen politikaren arloetan.

Legeak boluntarioen entitateei aseguru-poliza bat izenpetzeko betebeharra, besteak beste, ezartzen zien, boluntarioek boluntario lanetan aritzen ziren bitartean jasaten ahal zituzten eritasun arriskuei aurre egiteko.

Foru lege horrek indarra hartu zuenetik izaniko esperientziak direla-eta, boluntarioen entitateek poliza horiek izenpetzerik eta, hortaz, baldintza hori betetzerik ez dutela frogatu da. Beraz, onetsitako araudia ezin da bete.

Hori dela kausa, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat bidali zion Parlamentuari arau haren aldaketa proposatzeko, batetik, boluntarioen entitateei ezarritako betebeharrak merkatuko benetako aukeretara egokitzeko eta, bestetik, argi uzteko hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerak ere bere gain hartu beharko dituela estaldurak.

Hala ere, Bolondres lanari buruzko apirilaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legeak boluntarioen eritasunak estaltzeko aseguru bat ezartzera behartzen zituen entitateak berriro ere, nahiz eta, proiektu haren zioen azalpenean adierazi eta Parlamentuak hitzez hitz onetsi bezala, betebeharrak hori betetzea ezinezkoa duten, merkatuan ez baitago horrelakorik estaltzen duen inolako polizarik.

Horregatik, kontuan harturik boluntarioen erakundeek beste testu arau-emaile bat onesteko egin duten eskaera, legearen kontrako egoera batean aritu behar ez izateko, bidezkoa da apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzea, boluntarioen eritasunak estaltzeko aseguru poliza bat sinatzearen beharkizuna kentzeko.

Artikulu bakarra. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru legea aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzea.

4/2006 Foru Legearen 6.3.b) eta 11.2 artikulua aldatzen dira. Honelaxe idatzita geldituko dira:

Bat. 6.3 artikulua.

“b) Boluntarioen lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu eta kalte-galera arriskuen kontra ase-

guratuak izatea, erregelamenduz ezartzen diren ezaugarri eta diru kopuruen arabera.”

Bi. 11. artikulua.

“2. Aipatu entitateek aseguru-poliza bat izenpetu beharko dute, boluntarioek boluntario lanetan aritzen diren bitartean izaten ahal dituzten istripu arriskuei aurre egiteko, eta beren jardueraren

ondorioz eragin ditzaketen kalte-galerengatik hirugarrenen aurrean erantzukizuna hartzeko.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

Galdera, administrazioari aholku emateari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak administrazioari aholku emateari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du administrazioari aholku emateari buruz, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Aholku-txostena eskatu al zaio administrazioaz kanpoko erakunde edo entitate bati?

Doxa Consulting, S.A. aholkularitza enpresarekin balioespen-azterlan bat kontratatu da.

2. Zein prozedura erabili da kanpoko aholkularitza adjudikatzeko?

Erabilitako prozedura, Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legearen 80.5 a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, publikitate gabeko prozedura negoziatua izan da, eta lau enpresari egin zaie gonbita.

3. Lehiaketa publikoa egiteko zein modalitate aukeratu da?

Aurreko erantzunaren bitartez argitu dugu hori.

4. Txostena egiteko adjudikazio-hartzaile suertatu den aholkularitza entitateak izan al du lehendik loturaren bat Nafarroako Gobernuarekin?

Ez. Adjudikazio-hartzaile suertatu den aholkularitza enpresak ez du lehendik inolako loturarik izan Nafarroako Gobernuarekin. Halaber, aipatu behar da, aholkularitza enpresak egindako txostena ez dela loteslea kontratazio mahaiarentzat.

5. Adjudikazio-hartzaile suertatu den aholkularitza-entitateak kontraturen bat sinatua al du foru administrazioarekin?

Bai. Doxa Consulting administrazio publiko guztien ohiko aholkularitza enpresa da, eta besteak beste, hauentzat egin du lan: Katalunia, Balear Uharteak, Valentzia, Kanariar Uharteak, Aragoi, Gaztela eta Leon, Euskal Autonomia Erkidegoa, Errioxa, Madril eta Osasun Ministerioa. Nafarroan ere, 2003an, laguntza teknikoa emateko kontratu bat sinatu zuen.

6. Txostena egitea esleitu zaion aholkularitza-entitateak ba al du kontratu-lotura, hitzarmen edo harreman motaren bat Nafarroako Unibertsitatearekin?

Ez dugu horren berri. Dena den, aipatu aholkularitza enpresa horrek, Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legearen 2.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, lehiaketan parte hartu zuten enpresekin loturarik ez duen aginduzko deklarazioa aurkeztu du. Nafarroako komunikabide batean argitaratu denaren arabera, duela 40 urte, hau da 1966. urtean, Doxa enpresak aholkularitza lan bat egin zuen IESerentzat. Asmoa zen telekomunikazioei eta informazioaren teknologiei buruzko plana burutzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamenduen 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bi foru agindu zenbaki eta data berarekin argitaratu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bi foru agindu zenbaki eta data berarekin argitaratu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du bi foru aginduren zenbakiarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

1. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren otsailaren 15eko 36/2006 Foru Aginduaren bidez praktiketako zazpi beka emateko deialdia onetsi zen: bat Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkartzan aritzeko eta sei Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzuan aritzeko.

2. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 15eko 37/2006 Foru Aginduaren bidez, unibertsitateko tituluduentzako hiru prestakuntza beka emateko deialdia onetsi zen, Turismo Zuzendaritza Nagusia (Turismoaren Sektorea Sustatu eta Antolatzekeo Zerbitzua) aritzeko.

3. 2006ko otsailaren 20an, Nafarroako Gobernuaren komunikazio elektronikoko segururako kanalaren bidez, bi foru aginduak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko informazioa bidali zen.

4. Une horretan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren martxoaren 15eko 37/2006 Foru Aginduaren bidalketa betetzean alegia, hutsegitea gertatu zen; izan ere, foru aginduari zenbakia jartzean 36. zenbakia eman zitzaion, eta berez, aipatu foru aginduari 37. zenbakia dagokio.

5. Ohartarazteagatik eskerrak eman nahi ditugu, eta, halaber, aipatu hutsegitea zuzentzeko agindua eman dugula jakinarazi nahi dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Corellan saihebidia eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Corellan saihebidia eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Corellako saihebidia izan denaren trazadurari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera

2005eko urtarrilaren 3an, Corellako Udalak errepideei buruzko bigarren planean agertzen den saihebidearen trazadurari buruzko informazioa eskatu zuen.

2006ko martxoaren 16an, egunkarietan azaldu zen Nafarroako Gobernuak saihebidia bat eraiki behar duela, Corellako trafikoa murrizteko asmoz.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Jakinarazi al zaio Corellako Udalari prentsan agertutako informazioa? Zehaztu informazio hori noiz atera zen departamentutik.

2.- Corellako alkate Ramón Jiménez Gonzálezek saihebideari buruzko gutun bat igorri zion 2004ko abenduaren 16an Álvaro Miranda kontseilari jaunari. Zer erantzun eman zaio alkateari? Zehaztu informazio hori noiz atera zen departamentutik.

3.- 2005eko urtarrilaren 3an Corellako Udaleko Osoko Bilkurak saihebidia eraiki dadin eskatze-ko erabakia hartu zuen. Zer erantzun eman zaio departamentutik erabaki horren jakinarazpenari? Adierazi erantzunaren irteera-data.

4.- Aipatu saihebidearen trazadurari buruz, departamentuan ba al dago azterlanik, planori edo bestelakorik? Igorri al zaio informazio hori udalari? Adierazi erantzunaren irteera-data.

5.- Zehaztu saihebidearen trazadura, aurrekontua, eta lanak noiz hasi eta amaituko diren.

6.- Lan horiek errepideei buruzko planean Ebroko ardatzerako aurreikusten direnak baino lehenago hasiko al dira?

7.- Aipatu informazioak udalari ez bazaizkio igorri, azaldu zergatik jakinarazi zaizkien hedabideei udalari baino lehenago.

Erantzuna

1. Aipatzen den informazioa 2006ko martxoaren 16an hedabideetan agertutakoa dela uste dugu.

Esan behar dugu Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez diela hedabideei argitaratutako informazio hori helarazi.

2. eta 3. Corellako alkate Ramón Jiménez Gonzálezek bidalitako gutunari dagokionez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak saihebidia horri buruzko informazio azterlanaren kontratazio-espeditentia eta baldintza teknikoaren orria abian jarri ditu gutun horretan eskatutakoari erantzuna emateko.

4. Aurreko erantzunean esan dugunez, informazio azterlanaren kontratazio-espeditentia eta baldintza teknikoaren orria prestatu dira.

5. Trazadura berriko errepideei dagokien garapen teknikoari jarraikiz, informazio azterlana eta ingurumen eraginaren adierazpena izanzen dira, izapideak egin eta onesten direnean, jardueraren behin betiko trazadura zehaztea ahalbidetuko dutenak.

6. Corella – Cintruénigo eskualdeko errepide sarean trafikoa bideratzeko saihebidia bat egitea errepideei buruzko plan zuzendarian aurreikusita dago. Aipatu saihebidia onetsitako dokumentazio teknikoaren eskuragarritasunaren eta horretarako bideratzen diren baliabide ekonomikoaren araberaren egingen da.

7. Lehenengo erantzunean esandakoa berresten dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Etxalarren internetera konektatzeko banda zabala jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Etxalarren internetera konektatzeko banda zabala jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Etxalarren internetera konektatzeko banda zabala jartzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

1. Aurreikuspenen arabera, Etxalarrek noiz izango ditu Nafarroako Foru Komunitateko telekomunikazioetako azpiegiturak garatzeko plan zuzendariaren barruan jasotako interneteko banda zabaleko zerbitzuak?

Nafarroako Foru Komunitateko telekomunikazioetako azpiegiturak garatzeko plan zuzendarian aurreikusitakoaren arabera, Etxalarren aurtengo udan ezarriko dira interneteko banda zabaleko zerbitzuak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza bekaren deialdia onetsi eta ebaluazio batzordea hautatzen duen 55/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza bekaren deialdia onetsi eta ebaluazio batzordea hautatzen duen 55/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza beka emateko deialdiarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan ezarrita dauden herritarren eskubideen artean aitortzen da herritarrek eskubidea dutela "ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen araubide eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere".

Geroztik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeak, gaur indarrak gabe dagoenak, ezartzen zuen dirulaguntzaren onuradunak, dirulaguntza hori kobratu aurretik, Nafarroako Ogasun Publikoarekin zituen betebeharrak eguneratuta zituela frogatu behar zuela.

Hala ere, Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako prestakuntzarako beken kasuan izandako berezitasun batzuk zirela-eta, apirilaren 19ko 172/2004 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroa-

ko Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan prestakuntzarako bekak emateko araubide orokorra ezarri zen. Erregelamendu testu hori berariazko araua da.

Aipatu foru dekretuaren 12.2. artikuluan, hitzez hitz, hau esaten da: "Jarduketan hasten denean, eta Nafarroako Ogasun Publikoko zergaduna bada, onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du zerga betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzeko, bai eta zinpeko aitorten edo promesa, helburu bererako bestelako departamentu, administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuen laguntza publiko bateraezinik ez dela jasotzen ari frogatzeko".

Azkenik, galderan aipatzen denez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. e) artikulua ezartzen du onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izan behar dituela dirulaguntza emateko ebazpen proposamena ematen denean. Artikulu horretan ezarritakoa eta ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legean ezarritakoa oso antzekoak dira; bion arteko desberdintasun ia bakarrak dira zerga betebeharrak eguneraturik dituela frogatu beharreko unea aldatzea eta frogatu behar hori Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere zabalitzea.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak dirulaguntzei buruzko foru legean ezarritakoaren arabera egokitu ditu bere jarduerak, lege hori indarrean dagoenetik, baita herritarren eskubideak lehentasunez biltzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera ere. Horren frogatza da Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 2ko 14/2006 Foru Agindua, departamentuaren eskumenekoak diren hamar deialdiaren arau-oinarriak onetsi zituena. Deialdi horietan formalizaturiko eskabideetan organo kudeatzaileari baimena ematen zaio Foru Ogasunak, estatuko Tributu Administrazioaren Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko. Hori guztia egin da herritarren eskubideen eta segurtasun juridikoaren printzipioaren artean oreka bilatzeko, baita 2001. urtean administrazio prozedurari buruzko legeko hemezortzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoa aplikatzeko ere.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoetan prestakuntzarako bekak emateko araubide orokorra ezarri zuen apirilaren 19ko 172/2004 Foru Dekretuak biltzen dituen xedapenen hitzez-hitzekotasunaren aldeko hautua eta herritarrek administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ez aurkezteko duten eskubidea bateraezinak izan daitezkeela onartzen dugu. Hala ere, Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuaren esku-menen esparruan ematen diren prestakuntzarako bekak organo kudeatzaileek aipatu Foru Dekretuan ezartzen den ziurtagiria ofizios eskatuko lukete, interesdunek horretarako baimena eman ondoren. Hori eskatzeak ez luke eraginik izaneren Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza beka emate-

ko deialdiaren balioan; izan ere, ziurtagiri hori jardueraren hasieran aurkeztu behar da eta ez bekak esleitzeko eta agiriak aurkezteko fasean.

Dena den, beken izapideak egiten dituzten organoei argibideak emanen zaizkie, hurrengo deialdietan aipatutako gutzia kontuan izan dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, otsailaren 4an Xabierren antolatu ziren ekitaldietara joan ziren pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak otsailaren 4an Xabierren antolatu ziren ekitaldietara joan ziren pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko iragan otsailaren 4an Xabierren egindako ekitaldiari buruz. Hona Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Gai bera zela-eta joan den martxoaren 14an galdegileari emandako erantzunean aipatu genuenez, Xabierren Nafarroako alkateekin egin zen bilerara joan zirela ehun eta hamazazpi alkatek edo udaleko kidek berretsi zuten.

Izco jaunak jakin behar duenez, horrelako ekitaldietan gonbidatua izan baita, protokolo zerbitzu-

ek ez zituzten zerrendatu azkenean ekitaldira joan ziren pertsonak. Horregatik, joan den otsailaren 4ko ekitaldira joandako lagunen izen-abizenak ezin ditugu zehaztasunez jakinarazi.

Kontseilari honek sentitzen du deialdia egin ondoren, eta, besteak beste, PSOEko hainbat alkate bilerara joan zirela berretsi ondoren, Nafarroako Alderdi Sozialistak, egun eta ordu berean, Zangozan ekitaldi politiko bat antolatzeko erabakia hartu izana. Hala ere, PSN-PSOEko alkate batzuk Xabierera joan ziren.

Bestalde, nafar guztien zaindariaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko, apirilaren 1ean eta 2an, Valtierra eta Cabanillasko udalek eta bizilagunek Xabierren egindako "herrien egunak" ospakizunari gogo handiz eman zioten hasiera. Berotasun hori goraiatu behar dugu. Joan den apirilaren 8an, herri hauetako udalek eta bizilagunek, arrakasta handiz ere, ospatu zuten festa: Luzaide, Erronkaribar, Zaraitzu, Erro, Aezkoa, Nabaskoze eta Auritz.

Zenbait udalek beren herrietako egunak Xabierren ospatzeko data erreserbatu dute. Hona udala eta eguna: Añorbe, apirilaren 22a; Azagra, apirilaren 23a; Eguesibar, apirilaren 29a, Aguilar Kodeskoa, Aras, Cabredo, Genevilla, Marañón eta Lapoblación, apirilaren 30a; Sada eta Lizarraldeko 11 udalerrri (Los Arcos, Desojo, Bargota, Santsol, Mues, Torralba del Río, Esprontzeda, Torres del

Río, Armañanzas, Azuelo eta El Busto), maiatzaren 6a; Buñuel, maiatzaren 13a; Aranguren Ibarra, maiatzaren 14a; Sartaguda, maiatzaren 20a; Caparroso, maiatzaren 21a; Nazar, Mendaza eta Mirafuentes, maiatzaren 27a; Milagro, maiatzaren 28a; Funes, ekainaren 3a; Cascante, ekainaren 4a; Murillo el Fruto eta Castejón, ekainaren 10a; Azkoinen, ekainaren 11a; Ablitas, ekainaren 17a; Murillo el Cuende, Arrada eta Traibuenas, ekainaren 18a; Lodosa eta Murieta, ekainaren 24a; Arguedas,

uztailaren 1a; Lesaka, irailaren 30a; eta Cintruénigo, urriaren 22a.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilean

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, udalen herrilurretan NPBren ordainketa bakarreko eskubideen titulartasunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak udalen herrilurretan NPBren ordainketa bakarreko eskubideen titulartasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra, Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikitako José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera aurkeztu du udalen herrilurretan Nekazaritza Politika Bateratuko ordainketa bakarreko eskubideen titulartasunari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Kontseiluaren 2003ko irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduaren bidez, zuzeneko laguntzen araubideetan aplikatu beharreko xedapenak –Europako nekazaritza politikaren baitan– eta Nekazarietzako zenbait laguntzen araubidea ezarri ziren; horren arabera, dirula-

guntzen araubide horrek aurreikusitako ordainketa bakarreko eskubideak, aipatu erregelamenduko 38. artikuluan ezarritako erreferentziako aldian ordainketaren bat egin zaien nekazari bakoitzari emanen; betiere, ordainketa hori VI. eranskinean aipatzen diren dirulaguntzen araubideetako baten edo gehiagoren babesean eman bada; edo aldi horretan ordainketak izan dituen nekazari batengandik ustiategi osoa edo zati bat benetako edo aldeztu aurretiko jarauntsiaren bidez jaso bada; edo transferentziaren bidez edo erreserba nazionalaren laguntza-eskubiderik jaso bada.

Erregelamendua argia eta eztabaida ezina da, eta ordainketak balizko onuradun gisa jaso dituzten nekazariak baino ez ditu aintzat hartzen.

2. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak hartu-emanak izan ditu udalekin Europar Batasuneko erregelamenduek sortutako eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Aurreko kasuan bezala, Nafarroako Gobernuari ez dagokio interpretazioak egitea, baizik eta erregelamenduak betetzea. Erregelamendu horiek aldatzen badira, behar diren neurriak hartuko dira.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, jakiteko ea noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –epaitegiek eskaturik– irratien kontrataziorako mahaia 2006. urtean.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak honako galdera hau egin zuen: “jakiteko ea noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –epaitegiek eskaturik– irratien kontrataziorako mahaia 2006. urtean?”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko ea noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –epaitegiek eskaturik– irratien kontrataziorako mahaia 2006. urtean. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela irratien kontrataziorako mahaia 2006. urtean?

Behin irradi lizentzien esleipena behin baliogabetuta hartuko diren neurriei eta jarrerari buruz informatzeko Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean 2006ko martxoaren 9an egin

nuen agerraldian, Eledunen Batzarrak eskaturik, honakoa esan nuen hitzez hitz, eta horrela agertzen da bileraren aktan:

“Laburbilduz, jaun-andreok, Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia dela-eta, Gobernu honek epaiak esaten duena onartu eta beteko du. Horretarako, Nafarroako Gobernuak frekuentzia modulatu uhin metrikozko Iruñeko bi irrati emisoretarako baimena ematen zuen administrazio-espeditatea atzera eramatea agindu du; horrela, kontrataziorako mahaiak dagokion proposamena egingen du, aurkeztutako eskaintzak osotasunean eta zehaztasunez baloratu eta gero administrazio klausula partikularren orrian ezarritako irizpide guztiak behar bezala puntuatuko ditu, eta, behin egiaztatuta, prozedurak aurrera jarraituko du.”

Kontrataziorako mahaiak, kide anitzeko organoa izanik, autonomia osoz egin du lan; beraz, nik ez dut lan horren berri izan. Mahaiak egindako lana sinatu ondoren eta egindako proposamena kontratazio-organismoari bidali ondoren ezagutu ditut mahaiaren ondorioak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Ekonomia eta Ogasun Kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Administrazio Auzitegian aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak epean ebazteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Administrazio Auzitegian aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioak epean ebazteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du administrazioarekiko errekurtsioen ebazpenetan ematen diren atzerapenei buruz. Nafarroako Gobernuako departamentu guztiei informazioa eskatu ondoren, hauxe da erantzuna:

1. Nola azaltzen du Nafarroako Gobernuak 2005ean egoerak hobera ez, okerrera egin izana gora jotzeko errekurtsioak ebazteko epeari dagokionez?

Galderan esaten da 2005ean egoerak okerrera egin duela gora jotzeko errekurtsioak ebazteko epeari dagokionez; Nafarroako Gobernua ez dago ados baieztapen horrekin.

Nolanahi ere, azterketa zehatza egiteko honako datuak baloratu behar dira:

– 2005ean jarritako errekurtsioen kopurua handiagoa izan da (4.825 errekurtsio; 2000tik 2004ra bitarte, ordea, 16.303 jarri ziren).

– Ez da antzeman jaitsiera bat errendimenduan; aitzitik, uste dugu errendimenduak hobera egin duela gobernuak administrazioan enplegu egonkorra sortzeko egin duen ahaleginari esker.

– Jarritako errekurtsio berriez gain, ebatzi gabeko errekurtsio asko zegoen, eta horrek, lan-zama gehigarria dakar.

– Egoerak duen atzerapena ez da orokorra gobernuan, baizik eta departamentu batzuetako zenbait alorretara mugatua (batez ere, garraioen-gatiko zehapenen kontrako errekurtsioak); alor horietan, errekurtsioak ebatzi gabe egoteak galarrastan du zehapena betetzea irmoa izan arte;

beste alorretan, egoerak hobera egin du edo ez dago inolako atzerapenik.

– Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bigarren xedapen iragankorrean ezarrita dagoenaren arabera, aipatu lege horrek indarra hartu baino lehen jarritako errekurtsioei aurreko araudia aplikatzen zaie; hori dela eta, foru lege horrek errekurtsio berriak ebaztean izan duen berehalako eragin onuragarriak ez ditu ukituko aurretik jarritako errekurtsio horiek.

2. Zer neurri hartu asmo ditu, asmorik badu, Nafarroako Gobernuak gora jotzeko errekurtsioen eta bestelako administrazio errekurtsioen tramitazio egokia bermatzeko eta herritarrek administrazioak espresuki emandako ebazpena legez ezarritako epean lortzeko duten eskubidea errespetatzeko?

Nafarroako Gobernua jakitun da garrantzitsua dela errekurtsioak ezarritako epean ebaztea, eta bide onetik ari dela lanean uste du. Horretaz gain, 15/2004 Foru Legeak ekarritako berrikuntzan duen konfidantza berretsi nahi du; gainera, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean, administrazioa modernizatzeko eta errazteko prozesuaren barnean zenbait tramitazio-prozesuren birmoldaketa jarri du abian eta espedienteen kudeaketa integratuaren ezarpena ere bai; horrek kudeaketa eraginkorragoa eta arinagoa ekarriko du.

3. Neurriren bat hartu al da espediente horren ebazpenean eta izapideetan erantzukizuna duten unitate administratiboen titularrekin eta administrazio publikoen zerbitzuko langileekin, ebazteko epeak zergatik ez diren betetzen egiaztatu ahal izateko edo betetze hori bideratu ahal izateko?

Nafarroako Gobernua helburuak betetzeari buruzko etengabeko azterketa ezartzeko lanean ari da; horren adierazle da Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea, gobernuaren ekimenez onetsia, hain zuzen ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Gobernuak Ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikuluz egiten duen interpretazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Gobernuak Ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikuluz egiten duen interpretazioari buruz egindako galdearen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2a

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legearekin zerikusia duten hainbat gairi buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren iritziz, nola bete behar da Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikulua? Jabe guzti-guztiek sinatzea lortuz edo sinadura eman nahi ez dutenek hori adieraz dezaten epe bat emanez?

– Sinadura idatzia lortu behar dela jotzen bada, nola ebatziko dituzte udalek jabe ezezagunak edo atzerrian bizi diren jabeak dituzten lurzati-en kasuak?

Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeko 24.3 arti-

kuluak ezarri zuen jabetza pribatuko lurra dituen tokiko barrutia eratzeko toki entitateak jabeen baimena beharko duela.

Artikulu horrek aipatzen duen baimena da jabeak bere lurra barrutiaren barne egoteko eman behar duen onespina; horretarako, baimena espresuki eman dezake (banakako dokumentua non agertuko baita jabearen identifikazioa, utzitako lurra zein diren eta sinadura) edo adierazi gabeko baimena eman dezake, hau da, jabeak bere lurra barrutian dagoela onartzen du argitaratu eta gero (Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo/eta Udaletxeko edo Kontzejuko iragarki-oholean) ez baitu ezer esaten.

Baimena emateko bi moduak aurreikusita daude zuzenbide zibilean; beraz, baliozkotzat hartu behar dira Foru Legeak “baimena” baino ez baitu aipatzen.

Foru Legearen interpretazio horren alde esan daiteke aipatu baimenak ez duela ondorio juridikorik jabeak hala nahi badu; izan ere, jabeak bere lurra barrutitik atera nahi dituela adieraztea nahikoa da toki entitateak barrutiko azalera eta seinaletan behar diren aldaketak egin ditzan lur horiek kanpo uzteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 25ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, traumatologiako gaixoen igeltsua kentzeko itxaronzerrendei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak traumatologiako gaixoen igeltsua kentzeko itxaronzerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du traumatologia gai-

xoen igeltsua kentzeko itxaronzerrendei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Traumatologia arazo bat dela-eta igeltsua behar duten gaixoei igeltsua kentzeko hitzordua ematen zaie gaixo horiek artatu dituen traumatologoak hala erabakitzen duenean. Beraz, ez da itxaronzerrendarik sortzen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 25ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Aspacerekiko itunaren ez-betetzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Aspacerekiko itunaren ez-betetzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Ramón y Cajal zentroak Aspacerekin duen itunari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Enpresa batzordeak eta erabiltzaile baten senide batek Ramón y Cajal zentroaren aurka aurkeztutako erreklamazioei buruzko txostenak aztertuta (213/2005 eta 233/2005-3 espediente zenbakiak), ikus daiteke badirela datuak egiaztatzen dutenak Aspacerekin sinatutako itunaren baldintzak ez direla betetzen ari. Halaber, 2003., 2004.

eta 2005. urteetarako sinatutako itun horrek eskatzen duen langileen ratioaren azterketa ez da egin, eta 209/1991 Foru Dekretua ez da betetzen ari. Hori dela eta, hauxe jakin dut: zer egin behar du Gizarte Ongizate Departamentuak arau-hauste horiei dagokienez?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bidez, zerbitzua ematean kalitatea bermatzeko behar diren ekintzak usu egin ohi ditu; izan ere, Gizarte Ongizate Institutua eskuduna da ezgaitasunak dituzten pertsonentzako zaintza zentroen kudeaketa kontratatzeko, eta ondorioz, kudeaketa hori kontratuetan ezarrita dagoen bezala egiten den kontrolatzeko.

Zehazki, galderak aipatzen duen kontratuari dagokienez, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak horrelako urratsak egin ditu:

2005eko uztailean, aipatu erakunde autonomo-ko Itunen Atalak txosten bat egin zuen; txosten horretan, Ramón y Cajal zentroan bete gabe zeuden tokiak gordetzeak zuen kostu handia nabarmen gelditu zen.

Horren ondorioz, 2005eko irailaren 29an, administrazio aginduen orrietan ezarritako epea betetzeko, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak ituna salatu zuen, eta horrela, 2005eko abenduaren 31n, amaiera eman zion itunari; amaiera horrek bete gabeko tokien amortizazio automatikoa ekarri zuen; beraz, 2006ko urtarriletik aurrera ez da inolako diru kopururik ordaindu tokiak gordetzeko; hala ere, bere garaian sinatu zen kontratuan aurreikusten zenez, une horretan erabiltzaile zirenei zerbitzu ematea iragankortasun erregimenean mantendu zen.

2005eko abenduaren 31n 84 toki zeuden bete-ta, eta Nafarroako Gobernuak 84 erabiltzaile horiei baino ez die ordaindu behar. Hori kontuan izanik, 2006ko urtarrilaren 16an, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak Aspacek jakinarazi zion eguneko zentroko langileak proportzioan murrizteko zuen aukera (3,5 langile); betiere, zerbitzua emateko baldintza orokorrak mantenduta.

Baldintza horiei dagokienez, 2006ko urtarrilaren 19an, Aspacek Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuari idazki bat bidali zion honakoa esanez: baldintza orokor horiek galera onartezinak dakartzatela; 2005eko azaroaren 8an, enplegu erregulazio espedientea eskatu dutela lan-administrazio-ko agintaritzan, eta, espediente hori 2005eko abenduaren 13an onetsi dutela.

Zentroko enpresa batzordeak eta erabiltzaileen baten senideek 2005eko urrian eta abenduan aurkeztutako salaketak direla eta, Gizarte Ongizate Zuzendaritza Nagusiko Plangintza, Kalitatearen Ebaluazio eta Ikuskapen Zerbitzuak txosten bat egin zuen; txosten horretan aipatu zuen ikuskatzaileak Ramón y Cajal zentrorra joan ziren bi egunetan langile falta zutela eta 4. unitatea eta igerilekua itxita zeudela.

Halaber, 2006ko martxoaren 10ean, Plangintza, Kalitatearen Ebaluazio eta Ikuskapen Zerbitzuak beste txosten osagarri bat egin zuen; txosten berri horretan, Ramón y Cajal zentroari eskatutako langileen fitxen zerrenda oinarri harturik, lanbide kategoria bakoitzak 2005ean eta 2006ko urtarrilean eta otsailean egindako lanorduak aztertu ziren.

Txosten berri hori aipatu zerbitzuak zentroari eskatutako hainbat datuarekin osatu behar da.

Bi txosten horiek, "Aralar" parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentura bidali ziren

Bere aldetik, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak, itunaren balizko ez betetzei dagozkien neurriak hartzeko organo eskudunak, Plangintza, Kalitatearen Ebaluazio eta Ikuskapen Zerbitzuak egindako txostenean biltzen diren hainbat gauza argitzeko, aipatu zentroari zenbait dokumentazio eskatu dio behar diren jarduerak gauzatzeko.

Bestalde, itun guztiak zuzentzen dituzten administrazio klausulen orrien arabera, kontratu mota horien esleipena jaso duten entitateek, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak ezarritako ereduaren arabera egindako txosten tekniko eta ekonomiko bat bidali behar dute. Kontratuko betebeharrak hori betetzeari dagokionez, 2006ko martxoaren 31n, aipatu erakunde autonomoak Ramón y Cajal zentroak bidalitako 2005eko txostena jaso zuen.

Txosten horretan langileei buruz ematen den informazioa osatu gabe dago eta eguneko zentroko enpresa-batzordearen ziurtagiria ez da erantsi. Egoitzen batzorde iraunkorrak eta ez-iraunkorrak sinatutako ziurtagiria erantsi da, baina bertan ez da esaten batzordea Aspacek emandako informazioarekin ados dagoen ala ez. Aspacek adierazi du itundutako jarduerak 38.000 euroko galera eragin duela 2005. urtean.

Hori dela eta, eta eskatutako dokumentazio guztia eskuratzean gertatuko dena gorabehera, behin baino gehiagotan eskatutako informazioa osorik jaso ez denez, 2005eko bigarren sei hileko ordainketak erregularizatzeko daude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, etxeko ospitalizazio zerbitzua abiarazterari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak etxeko ospitalizazio zerbitzua abiarazterari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Tuterako barrutiko etxeko ospitalizazioari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Etxeko ospitalizazioko zerbitzuak laguntza emateko beste aukera bat dira, gaixoari ospitalekoaren mailako tratamendua eta zainketak bere etxean ematen diotenak; gainera, zerbitzu horietan esperientzia handia dago eta mota honetako laguntza izan duten gaixoen arteko gogobetetze-maila oso altua izan da.

Hori dela eta, legegintzaldia hasi zenetik, zerbitzu hori Nafarroan ezartzea departamentu honen helburuetako bat izan da; zerbitzua kokatzeko leku egokienaren bila ibili eta gero, Tuteran jartzea erabaki zen.

Beraz, etxeko ospitalizazioa ezartzeko egindako azterketa horretan ez da egon inprobisaziorik ezta plangintza falta ere.

Etxeko ospitalizazioko zerbitzuaren bitartez lortu nahi diren helburuak hauek dira:

a). Gaixoa eta familia. Gaixoa eta zainzaileak prozesu klinikoan gehiago inplikatzen dira, ardua handiagoa hartzen dute eta gehiago ikasten dute gaixotasunari eta gaixoari bere habitatean eman beharreko zainketei. Bestalde, leheneratze funtzionala azkarrago gertatzen da eta intimitatea gehiago gordetzen da.

b) Osasun arloko langileak. Familia eta osasun langileen arteko harremanak estuagotu egiten dira. Bestalde, osasun arloko hezkuntza-lanak erraztu egin ohi dira, etxea ospitalea baino egokiagoa delako ezagupenak eta trebetasunak eskuratzeko.

c) Osasun arloko antolakuntza. Ospitaleetako baliabideen erabilera hobetu egin dezake, egonaldiak laburtuz eta ospitaleratzeak saihestuz. Laguntzaren kalitatea handitzeaz gain, osasun mailen arteko koordinazioa bultzatuko da.

Etxeko ospitalizazioko zerbitzua "Reina Sofia" Ospitalearen menpe egonen den ospitalizazioko unitate batekin hasiko da, eta, beraz, ospitale horren menpe egonda, zerbitzua Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpe egonen da.

Gutxi gorabeherako kostua 200.000 eurokoa da.

Ez dago berariazko kontusailik horretarako, eta, sortuko den gastuak zer izaera duen, kasuan kasuko kontusailei egotziko zaie gastu hori.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 25ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Senda Viva naturaren parkeko plantillari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak Senda Viva naturaren parkeko plantillari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Senda Viva naturaren parkeko plantillari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

2004

Parkea		Azpikontratuak		Guztira	
Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako
30	80	4	6	34	86

Azpikontratuak:
Segurtasuna, garbiketa, lorezaintza

2005

Parkea		Azpikontratuak		Guztira	
Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako
25	40	4	46	29	86

Azpikontratuak:
Segurtasuna, garbiketa, lorezaintza, berritze-lanak

2006 (aurreikuspena)

Parkea		Azpikontratuak		Guztira	
Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako
15	50	8	54	23	104

Azpikontratuak:
Segurtasuna, garbiketa, lorezaintza, berritze-lanak, mantentze-lanak, marketina eta komertzializazioa

2007 (aurreikuspena)

Parkea		Azpikontratuak		Guztira	
Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako	Finkoa	Aldi baterako
15	50	8	62	23	112

Azpikontratuak:
Segurtasuna, garbiketa, lorezaintza, berritze lanak mantentze-lanak, marketina eta komertzializazioa

Xehetasun gisa, parkea ireki aurreko asteetan, apirilean, lanak denboraldia bukatu arte kontratazeko, parketik gertuko hiru herritan bilera bana egin dela aipatu behar dugu. Aipatu bileretara 75 lagun joan ziren; horrek berresten du bertan dagoen enplegu-maila handia.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Ribaforada-Cortes NA-5200 errepidean saihebidia egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Ribaforada-Cortes NA-5200 errepidean saihebidia egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du NA-5200 errepidean, Buñuelen parean saihebidia egiteari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Ribaforadatik Cortesera doan NA-5200 errepidean, Buñuelen parean, saihebidia egiteko, edo herri

horretako udalari laguntzarik emateko saihebidia egin dezan? Azaldu saihebidiearen ezaugarriak, aurrekontua, trazadura eta udalaren eta Nafarroako Gobernuaren lankidetzeta maila.

Buñuelgo Udalak herria inguratuko duen bide bat eraiki behar du. Bide horren ezaugarriak direla-eta, udalak eta Herrilan, Garraio eta komunikazio Departamentuak akordio bat sinatu dute bide horretako zolaketa egiteko eta horrela, bide hori Buñuelgo saihebidia izan dadin.

Lanak betetzeko, finantzatzeko eta trazadura baldintzak, erantsi dugun hitzarmenaren zirriborroan zehazten dira; zirriborro hori Buñuelgo Udaleko osoko bilkurak onartu zuen joan den martxoaren 28an eta laster sinatuko da.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duen hezurretako dentsitometria egiteko teknologiarik.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak honako galdera hau egin zuen: "jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duen hezurretako dentsitometria egiteko teknologiarik?"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdetu du ea zergatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duen hezurretako dentsitometria egiteko teknologiarik. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak herritarrei osasun zerbitzuak ematen dizkie bere baliabideen bidez edo itundutako baliabideen bidez. Zerbitzuen edo prestazioen ituntzea bi arrazoi edo irizpide hauengatik egiten da: subsidiaritateagatik edo osagarritasunagatik. Hezurretako

dentsitometria itunduta dago osagarritasunagatik, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalak eskatuta Nafarroako Klinika Unibertsitarioan egiten den prestazioa da.

Hezurretako dentsitometria Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalak dentsitometria hori erabiltzea egokia ikusten duten kasu guztietan beharrezkoa da.

Proba horiek egitea, batez ere Ginekologia, Traumatologia eta Erreumatologia zerbitzuek eskatzen dute, baina baita Barne Medikuntza eta Endokrinologia zerbitzuek ere.

Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako dentsitometriei dagokienez, honako hauek izan dira:

2000. urtean:	954
2001. urtean:	973
2002. urtean:	1.179
2003. urtean:	1.105
2004. urtean:	1.371
2005. urtean:	1.425

2006. urtean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Klinika Unibertsitarioak hezurretako dentsitometria bakoitzeko 93,33 euro tarifa itundu dute.

Kostua honakoa izan da:

2000. urtean:	54.340,68 euro
2001. urtean:	56.027,52 euro
2002. urtean:	71.799,80 euro
2003. urtean:	69.804,22 euro
2004. urtean:	89.199,96 euro
2005. urtean:	127.853,20 euro

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Senda Viva naturaren parkean egitekoak diren inbertsioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Senda Viva naturaren parkean egitekoak diren inbertsioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galde-

ra egin du Senda Viva naturaren parkean egitekoak diren inbertsioei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. galdera.

2006ko denboraldian egin behar diren inbertsioak –horietako batzuk apirilean oraindik gauzatu gabekoak–, guztira, 6 milioi euro inguru kostatuko dira, bi kontusailetan banaturik:

– Eskaintza ludikoarekin zerikusi zuzena dutenak eta parkearen erakargarritasuna areagotzen dutenak:

Deskribapena	Euroak, milakotan
▪ Bobsleigh zirkuitua (basoko mazelan behera leraz jaitea)	1.300
▪ Alfonbra hegalariaen eraikin berria eta alfonbra berri bat, dagozkien grabatzeko sistemekin.	300
▪ Lakuaren gaineko tirolina	60
▪ Uretako labirintoa	300
▪ "Natur bidea"	270
▪ Etxe sorgindua zeharo eraberritzea	120
▪ Etxaldeko eremua nahiko zabaltzea.	330
▪ Animalien erakusketaren berritze nabarmena	350
▪ Bardeako behatokiak sortzea (kanpokoa eta barruko behatoki interaktiboa)	110
▪ Ibilgailu elektrikoaren zirkuitu berria	200
▪ Seinaleak (ia ehun afixa)	170
GUZTIRA	3.510

– Bisitarien erosotasun handiagoa dakarkieten ekintzak –hau da, zerbitzuak, azpiegiturak eta zuhaitzak– hobetzea. Ekintza horiek beharrezkoak dira epe luze eta ertainean parkearen eskaintza finkatzeko.

Ekintza horiek parkeari balio erantsia ematen diote; horretaz gain, parkearen oraingo irudia hobetzen eta osatzen dute. Horietariko batzuk urteko inbertsioak dira, baita berritzeko inbertsioak ere.

Erosotasunean eta bisitarien emandako zerbitzuan izandako hobekuntzak (ekintza batzuk datozen kanpainetara luzatuko dira) 2,5 milioi euro inguru kostatuko dira.

- Lau iturri jartzea
- Seinaleak (ia ehun afixa)
- Instalazioak seguruago eta erosoago egitea
- Birlandatzea, ureztatzeko belardiak sortzea, 240 zuhaitz landatzea, eta eskualdeko landaredia duten alderdiak
- Txarteldegietarako sarbideak
- Oinezkoentzako bide eta plaza berriak
- Trenen eta kamioen ibilbide berriak
- Itzalpeko alderdi berriak (herria, azoka eta ipuin-kontalariaren alderdia)

- Haizetik babestekoak (txarteldegia, geralekuak, ibilgailuak)
- Hegazti-bilduma hobetzea
- Basoko jatetxea handitzea
- Megafonia, sistema informatikoa eta laneko segurtasuna hobetzea

2. galdera.

Egindako galderak kontzeptu akats bat du. Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Senda Vivari ez diola zuzenean inolako diru kopururik ematen argitu behar dugu. Parkean ez da inbertsio publikorik egon. Parque de la naturaleza de Navarra, S.A. enpresaren akziodunen batzar nagusiak Senda Vivan egiten diren inbertsio guztiak onetsi ditu.

2005ean, Parkeak eta Sodenak (erreferentzia-ko akzioduna) finantzaketa-akordio bat sinatu zuten; akordio horren arabera, urteko interes tasa euriborra gehi % 0,5 da. Senda Vivak ez du interesik sortuko errentagarritasun-atalasera heldu arte.

3. galdera.

Hona hemen bisitari kopuruei buruzko aurreikuspenaren eta bisitarien kopuru errealeko arteko bilakaera azaltzen duen grafikoa:

	Aurreikuspena	Egiazkoa	Aurreikuspena
Bisitariak	42.500	41.600	65.000
Zabaldutako egunak	78	78	110
Bisitariak/eguneko	545	533	591

Parkearen hirugarren denboraldi hau bereziki adierazgarria da; izan ere, Senda Vivak eskualdean dituen eragina eta garrantzia gero eta nabarmenagoak dira. Bisitari kopuruaren bilakaera positiboak eta bisitariak Senda Vivari buruz egiten duten balorazioak aipatu eragina berresten dute; joera hori joan den denboraldian hasi zen agertzen, eta hala azaldu genuen Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari 2005ko azaroaren 24an emandako idatzizko erantzunean.

Aste Santuan, hoteletako, landetxeetako, ostalaritzako eta abarreko ia toki guztiak bete ziren. Egonaldiak, batez ere, gau batekoak edo bi gaukoak izan ohi dira, eta maiz, egun horietako bat Senda Vivara joateko erabili dute. Apirilaren 13tik (osteguna) apirilaren 17ra (astelehena) bitartean, bost egunetan alegia, ia bost mila lagunek bisitatu

dute parkea; jende gehiena apirilaren 13an, 14an eta 16an joan zen (gutxi gorabehera 2.200 lagun); Hori dela eta, jendea arratsaldean ateratzen hasi zen arte ez zen bisitari gehiago sartu. Beraz, Senda Viva ikusteko Arguedasera joandako milaka lagun parkera sartu ezinean geratu ziren. Zehazki, apirilaren 14an (ostiral santuan) foruzainek goiz osoa eman zuten parkerako sarbideetan, Arguedas eta Valtierrako trafikoa kontrolatzen eta zuzentzen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Nafarroan oinarrizko errenta jasotzen duten familiei eta gizarte bazterkerian bizi direnen gaineko zenbait auziri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak Nafarroan oinarrizko errenta jasotzen duten familiei eta gizarte bazterkerian bizi direnen gaineko zenbait auziri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbre-

ras Iñigo andreak galdera egin du Nafarroan oinarrizko errenta jasotzen duten familiei eta gizarte bazterkerian bizi direnen gaineko zenbait auziri buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. - Zenbat familiek jaso zuten Nafarroan, 2005ean, oinarrizko errenta? Zenbateko errentak hartu zituzten? Udalez udal azaltzea nahi dugu.

2005ean, guztira, oinarrizko errenta jasotzeko 3.857 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 2.943 eman ziren; emandako horiek 2.127 unitate hartzaile desberdinei zegozkien.

Zenbatekoei dagokienez, urtero ezartzen direnak dira. 2005. urteko zenbatekoak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak otsailaren 3ko 9/2005 Foru Aginduaren bidez onetsiak, hauek dira:

Pertsonak	Zenbatekoak
1 (Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 80)	375,84 €
2 (Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 90)	446,31 €
3 (Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 105)	493,29 €
4 (Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 115)	540,27 €
5 (Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 125)	587,25 €
6 edo gehiago (Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 130)	610,74 €

Batez besteko zenbatekoa	370,12 €
Gehienezko oinarrizko errenta	610,74 €
Gutxienezko oinarrizko errenta	32,89 €
Ezgaituentzako aldizkako dirulaguntza	336,92 €

Azkenik, hona hemen datuak gizarte zerbitzuetako barrutien arabera zehazturik:

	Iparmendebaldeko Barrutia	Iparekialdeko Barrutia	Lizarrako Barrutia	Tafallako Barrutia	Tuterako Barrutia	Iruña	Iruñerria	GUZTIRA
Eskaerak	164	71	280	308	718	1.585	531	3.657
Emandakoak	133	54	229	253	516	1.321	437	2.943
Ukatutakoak	22	12	33	41	151	163	68	490
Bajak	10	11	20	23	64	90	46	264

2. - Zein prestakuntza ekintza egin dira Nafarroan, 2005ean, gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat? Zenbat pertsona sartu dira enpresa arruntetan?

Lan-prestakuntzaren eta enpleguaren arloak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eskumenekoak dira. Zerbitzu horrek prestakuntza-ekintza normalizatu ugari garatzen ditu, eta ekintza horietan gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonak sartu ohi dira.

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak laguntzen ditu toki entitateek sustatzen dituzten babes-tutako enplegu sozialeko programak; programa horien barne, lanarekin berarekin batera, gizarte-laguntzea, lanerako prestakuntza eta gizarte- eta lan-trebetasunetarako prestakuntza sartzen dira.

Bai toki entitateek bai gizarte ekimeneko entitateek gizarte bazterkeriako egoeran dauden edo

egoteko arriskua duten pertsonen zuzendutako prestakuntza-ekintza ugari garatzen dituzte.

Horretaz gain, ACCEDER bezalako programak daude, ijitoen gutxiengo etnikoaren gizarteratzea eta lan munduratzea lortzeari zuzendutakoak; programa horiek aplikatzen dituzten ibilbide indibidualizatuen barne, prestakuntza ere sarturik dago.

Enpresetan laneratzeari dagokionez, lehenik eta behin adierazi behar dugu laneratzea neurtzeko modu asko dagoela osatzen duten aldagaien artean zein nagusitzen den kontuan harturik: kontratuaren iraupena, kontratu mota, kontratua bertan behera uzteko arrazoiak, eta abar... Esate baterako, laneratzetzat hilabete baino gehiagoko iraupeneko kontratua duten lan harremanak hartu ohi dira.

Kontzeptua definitzeko zailtasuna oraindik handiagoa da enpresa arruntetan eman diren laneratzeak zenbatzeko orduan; izan ere, laneratze hori-

ek, gutxiasko, egun dauden programa ugari eta askotarikoen ondorioz gertatzen dira: alde batetik programa normalizatuak (Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoak; udaletako, sindikatueta eta enpresarien lana emateko agentziak; hedabideetako iragarkiak; lan-poltsak, aldi baterako lan-enpresak; familia- eta gizarte-laguntzak; norberaren kandidaturak, etab.), eta bestaldekiko programa espezializatuak (lanaren bilaketa aktiborako programak; lanaren bidez gizarteratzeko prozesuetako gizarte-laguntzea; gizarte-enplegu babestua; banakako lan proiektuak gauzatzeko laguntzak; enpresetan laneratzeko laguntzak; enplegurako zentro bereziak; gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko zentroak; lanerako prestatzeko zentroak, eta abar).

Gainera, gizarte bazterkeriako egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonekin egindako esku-hartze soziala, hasiera batez, ohiko bideetatik gauzatu behar da (normalizazio eta integrazio printzipioen arabera), eta soilik beste aukerarik ez dagoenean, neurri intentsibo eta pertsonalizatuak dakartzaten bideak erabiliko dira; esaterako, gizar-te-laguntzea.

Beraz, baztertuta gelditu diren pertsonen errola egitea eta pertsona horien lan munduratzeko lortzeko erabili den bidearen arabera tratamendu estatistikoa ematea praktika baztertzaila iruditzen zaigu; hori dela eta, egindako galderari ezin zaio osotasunean erantzun.

Hala ere, programa espezializatu batzuei buruzko zenbait datu erreferentzial emateko aukera dago; esaterako, Lizarrako laneratze eta gizarteratzeko taldeak, 2005ean, 83 pertsonekin lan egin du: 46 emakume eta 37 gizon; gizonetatik % 48,6k lanpostu normalizatu batean laneratzea lortu du, eta emakumeetatik % 45,6 gauza bera lortu du; bestalde, 2005ean, 33 pertsona enpresetan laneratzeko laguntzen onuradun izan dira.

Gizarte bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen laneratzeko helburua ez da "lanpostua lortzea", baizik eta "lan aukerak hobetzea". Gizarte bazterkeria fenomeno konplexua da eta modu askotan agertzen da: Pobrezia ekonomikoa, lan eza, etxebizitza duina ez izatea, prestakuntza gabeziak, osasunak eragindako arazoak, harremanetan sortutako gatazkak, gizar-tean parte-hartzeko aukeraren galera, eta abar. Adierazle horiek loturik eta nahasturik agertu ohi dira; hori dela eta, maiz ez da erreza kausa eta ondorioak bereiztea. Bazterkeria egoera horietan esku hartzeko ezinbestekoak dira interesdunaren parte-hartze aktiboa eta ikusmolde orokorra izatea: izan ere, adierazle bakar batean eragitearekin ez da gizarte bazterkeria konpontzen.

3. - Nolako gizarte laguntza eman zaie 2005ean oinarritzko errenta kobratu duten familiei? Nola dago osatuta laguntzako profesionalen taldea?

Oinarritzko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuan, prestakuntza horren izapideak egitea oinarritzko gizarte zerbitzuei dagokiela ezarrita dago. Aipatu zerbitzuek txosten soziala betetzen dute eta eskatutako beste dokumentazioarekin batera Nafarroako Gizarte Ongizate Institutura ebazteko bidaltzen dute. Oinarritzko errentak izaera subsidiarioa eta aldi baterakoa du, eta erabiltzaileak bere bitartekoekin bete ezin dituen oinarritzko beharrak betetzera zuzenduta dago. Hori dela eta, jasotzaileak bere aldatzeko prozesuan parte hartu behar du; horretarako, Gizarte Zerbitzuen Oinarritzko Laguntza sarea osatzen duten profesionalen jarraipena eta laguntza izanen dute; gainera, jasotzaileak profesional horiekin gizarteratzeko akordio bat sinatuko du.

Jarduera maila horretaz gain, Nafarroako bazterketa sozialaren aurkako planak jarduera espezializatuago bat proposatu du, gizarteratze eta laneratze taldeek (EISOL) egin beharrekoa; aipatu planak talde horiei oinarritzko errenta prozesuetan eta lan bazterketaren eta bizitoki gabeziaren kontrako jardueretan funtzioak ematen dizkie. Gizarteratze eta laneratze taldeak oinarritzko gizarte zerbitzuei laguntzeko ezarri ziren, eta une honetan bi daude, Lizarrako Barrutian bat, eta Iruñean beste bat. 2006an aurreikusita dago Tafallako Gizarte Zerbitzuetako Barrutian ezartzea, eta 2007an, Tuteran eta Erriberan.

Gizarteratze eta laneratze talde bat osatzen duten profesionalen kopurua eta prestakuntza aldatzen da barruti batetik bestera barruti bakoitzeko beharren eta bertan dauden baliabide sozialen arabera. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak Lizarrako Barrutian ezarritako taldea honako langileek osatua da: 2 gizarte langile (horietako bat koordinazio lanetan) eta bi gizarte-hezitzaile; Iruñeko taldean, berriz, lanaldi partzialean aritzen den psikologo bat, lan-kudeatzaileak eta abar daude.

4.- Zenbat hazi da pobrezia moderatua Nafarroan 2005ean? Zer dela eta igo da? Zer da pobrezia moderatua Nafarroako Gobernuarentzat? Nafarroako zenbat pertsonen eta familiek pairatzen dute pobrezia moderatua?

Alderatzen baditugu bazterketa sozialaren aurkako planak oinarri zituen 1996ko Nafarroako pobrezia buruzko datuak eta 2003ko azterketaren datuak, oro har, pobrezia larritik pobrezia moderatura aldatzea eman dela ondorioztatu dezake.

kegu. "Pobreen" kopurua bera da, baina, pobrezia larrian daudenak % 9,9 gutxiago dira eta pobrezia moderatuan daudenak % 9,9 gehiago dira.

Hortaz, pobrezia moderatuaren hazkundera gertatu da pobrezia larria geldiarazi dugulako; eta hori gertatu da, batez ere, bazterketa sozialaren aurkako planaren neurriak ezartzearen ondorioz.

Horretaz gain, azken urteotan ugaritu diren jasotzaile etorkinek ez dute pobrezia larriko profila, baizik eta pobrezia moderatukoa, hau da, hasieran egoera ekonomiko estua dute baina gero ateratzen dira egoera horretatik.

Pobreziaren kontzeptua konplexua da eta definitzea eta neurtzea oso zaila da FOESSA izeneko txostenak hartutako irizpidearen arabera (Europar Batasunean ohikoena dena), pobretzat hartzen dira estatuko batez besteko errenta erabilgarri garbiaren % 50 baino gutxiago irabazten duten pertsonak edo familiak.

Definizio hori kontuan izanik lau pobrezia maila daude:

1.- Muturreko pobrezia: batez besteko errenta erabilgarri garbiaren % 15 baino gutxiago.

2.- Pobrezia larria: batez besteko errenta erabilgarri garbiaren % 15 eta % 25 bitartean.

3.- Pobrezia moderatua: batez besteko errenta erabilgarri garbiaren % 25 eta % 35 bitartean.

4.- Ezegonkortasun soziala: batez besteko errenta erabilgarri garbiaren %35 eta % 50 bitartean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Plangintza zerbitzuaren aginduz, 2005ean, Datlan enpresak Nafarroako bazterketa sozialaren era pobreziaren aurkako planaren ebaluazio-azterlan bat egin zuen; azterlan horretan 1996ko datuak eta 2004koak alderatu eta aztertu zituen; 1996an finkatu ziren mailak data horretatik Nafarroan izandako KPIaren igoeraren datuak erabiliz eguneratu dira. Hori eginda, hona hemen ateratako datuak:

		1996		2004 (*)	
		Pertsona bakarra	Bikote bat bi seme-alabarekin	Pertsona bakarra	Bikote bat bi seme-alabarekin
Pobrezia moderatuaren muga (famiaren errenta erabilgarri garbiaren % 50)	Euroak, urteko	6.358,10€	17.166,87€	8.060,65€	21.763,76€
Pobrezia larriaren muga (famiaren errenta erabilgarri garbiaren % 25)	Euroak, hilabeteko	529,84€	1.430,57€	671,72€	1.813,64€
Oinarrizko errentaren baremoa	Euroak, urteko	2.942,56€	4.284,01€	4.420,8€	6.354,96€
	Euroak, hilabeteko	245,21€	357,00€	364,4€	529,58€

(*) Kalkulatu da 1996ko datuak oinarri hartu eta urte bakoitzeko KPIa gehituta.

Iturriak: geuk prestatua Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarriturik. Bazterketa sozialaren aurkako plana.

Aipatu azterlana dela-eta egindako laginaren arabera, betiere estatistikaz ari garela kontuan izanik, Nafarroako 941 familia pobrezia moderatuko egoeran daudela esan dezakegu.

Datu horiek pertsona kopurura estrapolatuz, laginaren pertsona/familia ratioa kontuan izanik (batez beste familia bakoitzeko 3,05 kide), Nafarroan 2.856 pertsona pobrezia moderatuan daude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten duen 700/2006 Ebazpenean administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten duen 700/2006 Ebazpenean administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko deialdia onesten duen 700/06 Ebazpenean administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 28ko 700/2006 Ebazpena –kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten du–, bere zioen azalpenean aipatzen denaren arabera, Lan eta Gizarte Aferen Ministerioaren azaroaren 7ko 3501/2005 Aginduan ezarritakoa Nafarroara ekartzearen ondorioa da. Aipatu aginduan kooperatibetan eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzen dira. Agindu horren xedapen gehigarri bakarraren arabera, kooperatiba eta lan sozietateetako sustapen programen kudeaketaren arloan eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu zaizkien autonomia erkidegoek aginduan ezarritakoa egokituko dute beren antolakuntzara eta beren lurralde eremuko arau aplikagarrietara.

Espainiako Konstituzioaren 149.1.7) artikuluan eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobe-

tzeari buruzko Lege Organikoaren 58. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan arloa Estatuaren eskumen osoa da eta Nafarroari Estatuaren legedia betearaztea dagokio. Estatuaren, autonomia erkidegoen eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko eskumen banaketa hori Konstituzio Auzitegiak interpretatu (besteak beste, azaroaren 21eko 158/2004 Epaian eta abenduaren 18ko 230/2003 Epaian) eta, orain dagokigunari buruz, ondorio hauek atera ditu:

– Enplegu politiken isla diren dirulaguntzen deialdiak Konstituzioak lan arloa deitutakoaren barruan daude; lan arloko legedia ematea Estatuaren eskumena da. Doktrina horren arabera, dirulaguntzen deialdiak legediaren barne sartu behar dira; hori dela eta, Estatuak nahi adina zehaztu ditzake deialdi horien helburuak, baldintzak eta izapideak, eta lan arloko legedia betearazteko eskumenak dituzten autonomia erkidegoek horiek nahitaez bete beharko dituzte.

– Aurrekoaren ondorioz, lan arloko legedia betearazteko eskumena duten autonomia erkidegoek Estatuak onetsitako dirulaguntzen deialdiak eragindako zerbitzuak antolatzeke ahalmena baino ez dute.

Arestian esandakotik ondorioztatzen da, orain hizpide dugun 700/2006 Ebazpenaren bezalako kasuetan, Estatuak alde aurretik ezarritakoak mugatu egiten duela Nafarroako Foru Komunitateak duen arautzeko ahalmena; horrela, Nafarroako deialdietan Estatuako legerian zehaztutako baldintzak, izapideak eta betebeharrak dokumental berberak ezarri beharko dira. Horren ondorioz, hizpide dugun deialdiaren 7. oinarrian eskatutakoa, lan-sozietateen erregistroko agiria izan ezik, aipatu Lan eta Gizarte Aferen Ministerioaren 3501/2005 Aginduaren 7. artikuluan ezarritako bera da, nahitaez; izan ere, Foru Komunitateko administrazioak ez du ahalmenik beste arautze bat egiteko.

Herritarrek jadanik Foru Komunitateko administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko duten eskubideari dagokionez, ondoko oharpenak egiten ditugu:

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 11/2005 Foru Legearen 13.8 artikuluan ezartzean da ez dela eskatuko artikulua honetan aipatutako beteki-

zunak edo baldintzak betetzen direla froga dadila, baldintza horiek foru erkidegoko administrazio organoek ziurtatu beharrekoak badira edo egiaztagiriak haren esku badaude, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 9.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.

– Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan ezarrita dago herritarrek esku hartzen duen administrazioak jadanik dituen agiriak ez aurkezteko eskubidea dutela. Eskubide hori era ia berdinean bilduta dago aipatutako 15/2004 Foru Legearen 9.4 artikuluan; era berean, lege horretan eskubide hori gauzatzeko mekanismoa ezartzen da, honako esaten baitu: “horretarako, herritarrek agiria dagoen espedientea identifikatu ahal izanen dute, eta organo eskudunek ere eskatu ahal izanen diete interesdunei hori egin dezaten”

Hori dela eta, 30/1992 Legearen 35.f artikuluan eta 15/2004 Foru Legearen 9.4 artikuluan ezarritakotik ez da ondorioztatzen administrazioak deialdietan bere esku duen zenbait agiri aurkezteko ez duela eskatu behar, baizik eta herritarrek administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko eskubidea dutela, administrazioak bere deialdietan agiri horiek eskatu arren; hala ere, herritarrek ezin dira beren asmoetan laguntzarik gabe utzi; horregatik, interesdunak berak hala erabakirik edo administrazioak eskaturik, dokumentazio hori dagoen espedientea identifikatzeko aukera ezarrita dago, eta instrukzio organoak erantsi beharko du aipatu dokumentazioa. Ondorio hori dirulaguntzen izapideak egiteari ere aplikatuko zaio; izan ere, lehen aipatu dugunez, 11/2005 Foru Legea

dokumentazio zehatz bat ez eskatzeko mekanismoa ezartzerakoan 15/2004 Foru Legearen 9.4 artikuluan ezarritakoari lotzen zaio.

Azkenik, ondoko zehaztapenak egin behar ditugu:

– Nafarroako Foru Komunitateko Lan Sozietateen erregistroko agiria sozietatearen eraketako eskrituren osagarria da; eskrituretan lan sozietatea dela agertu beharko da. Aipatu agiria interesdunari eskatzen zaio eraginkortasuna eta ekonomia arrazoiengatik; izan ere, agiri hori nahitaez aurkeztu behar diren eskriturekin edo entitatea eratzeko aktarekin batera egon ohi da.

– Oinarrizko gizarte zerbitzuen txostenari dago-kionez, bere edukia kontuan izanik, txostena eskatzeko baimena duen bakarra interesduna bera da; dena den, behin txostena eginda, zuzenean Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentura bidaltzen da, eta departamentu horrek, interesdunak berriro esku hartu gabe, Nafarroako Enplegu Zerbitzura bidaltzen du.

– Eskatzaile batek dokumentazio guztia aurkeztu ez duenean eta dokumentazio hori jadanik izapideak egin behar dituen organoaren esku dagoenean, ohikoena da hautemandako akatsa zuzentzeko ez eskatzea, eta administrazioak duen dokumentazioa espedienteari eranstea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 28an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	